

## De Rerum Natura

@zaldieroa



### HIZPIDEAK

## 600 botogatik

Mikel P. Ansa @peruarenaansa

**M**artin Schultzen, sozialdemokraten, Alemaniaren eta Europaren etorkizunak Bonnen dute zita, gaur. Merkelekin lau hilabete darमतza gobernu osatu ezinik. Berdeekin salatu zen, baina lortu ez, eta SPDren gana jo du berriro. Lehenago ere gobernu kide izan dira, bi alditan, baina oraingoan bere ezkerreko irudia indartu nahi zuen SPDk, eta koalizioaren ezezko argi bat eraman zuen kanpainara. Hitza jan, eta Merkelekin aurreakordio bat egin zuen Schultzek joan den astean; handiak dira arriskuak, eta handiak presioak. Orain, SPDko 600 kide berretsi behar dute aurreakordia, negoziatzen jarraitzeko. Aurrerago, SPDko 450.000 afiliatuek berretsi beharko dute ituna. Sozialdemokrata gazteen burua, Kevin Kuehnert, kanpaina gogorra egiten ari da gaurko bozketan ezetza emateko; SPDren galbidea deritzo itunari. Baina irabazteko aukera gutxi dute gazteek. Europako ekonomia handienaren etorkizuna dago jokoan; euroaren datozen hilabeteetako bilakaera; Europaren berregituraketa eta brexit-aren negoziazioa. SPDk ezezkoa emango balu, Merkelekin gutxiengoan gobernatzea edo berriro bozak egitea, beste aukerarik ez legoke, biak aldrebesak merkatuek desio duten egonkortasun aintzatsu horrentzat. Schultz segurua dago, baina apustu arriskutsua egin du. Gaur ez bada, afiliatuek bozkatuko duten egunean kontrako eztairik joan dakioke. Eta kasu horretan kolpe handiagoa hartuko luke SPDk, eta Alemaniaren eta Merkelen etorkizuna ere kolokan jarriko liriteke.

## Zuri-beltz



HITZ ETZANAK  
Andoni Egaña

**A**tzo bete zen urtebete Trump Etxe Zurira heldu zenetik. Azalak eta mamiak elkarrangin eraginik badute, gizon honen estiloak mundua galbidean jar dezakeela onartuko dugu. Fanfarroietan fanfarro, mehatxatu egin ditu batzuk. Hesiak egin nahi ditu edonon. Edozein emakumeri eta edonon nondik heldu behar zaion bada-ki eta aholkuak ematera ausar-

tzen da. Toki jakin batean jaitzeza baino akats handiagorik egin gabeko jende xeheari irain egin dio.

Konparazioak egitekotan parekoak hartu behar direla eta Estatu Batuetatik irten gabe topa daiteke Etxe Zuriri kontrajartzeko moduko adibidea. Soineko beltza. Jane Fondarena.

Laurogei urte bete berri-tan Instagramen bere argazki bat ipini zuen alfonbra gorriaren

gainean soineko beltz enka-jedunaz jantzita, guapa asko. Biharamunean beste argazki bat igo zuen. Berea hori ere, gosaltzen ari zela, aurpegiera eta ilajea atondu gabe, baina bezperako soineko bera zeramala, eder asko. Hitz batzuk erantsi zizkion argazkiari: «Neu naiz, hurrengo goizean. Kremailera ezin izan nuen jaitsi, eta soinekoarekin egin behar izan dut lo. Nire bizitzan ez dut sekula senar baten falta orain adina sumatu».

Mesede luke munduak etxe zurikoak soineko beltzduaren ironia maila baleuka.

## Txillar artean pasieran

**S**ortzeko bekak zuten, gutako serafinak, kerubinak eta goi-ange-ruak ez bezala, Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik. Donostiako alkate jaunak gogorarazi digu asteon Euskadi Irratian, Antigua auzoan inauguratu berri den horma irudiaren kari: Txillardegik ETAREN sortzaileetako bat izatea «arazoa» da gaur egun.

Nik ulertu egin nahi diot Eneko Goiari, zehaztu ere egiten baitu momentuko ahokada ez dirudiena. Gauzak ez direla nahi bezain errazak esaten ari zaigu. Eta hori dienean politikari da, indarren arteko sinergie-z, zuhurtzia. Baina horratx betiko eskola, ezin agirika aritzeari utzi,



LARREPITIT  
Iñigo Aranbarri

kasu honetan ekitaldiaren susta-zaileei, gauzak bestela egitera udalak haren izena honezkero liburutegian, Kursaal, Tabakaleran jarria izango balu bezala: «Aldez aurretik beharrezkoak diren aliantza eta konplizitateak landu gabe sustatu dituzte ekimenak, eta modu horiek ez dute asko laguntzen».

Ez da ez, ordea, errietarekin batera, idazlearen figura osatzeko zirkinik txikiena egin. Ez dago testuingururik, ez merituen aitortzarik, ez erakunde ofizialek urteetan gizonarekin izaniko bazterketa sistematikoaren aipamenik, are gutxiago autokritikarik. Nola bada, jatorrizko bekak badu, ETAREN sortzaileetako bat izan zen... frankismo gorriean.

Txillardegik ETAREN eboluzio-az izaniko iriztietan edota haren aldean burdina suelto dantzatutako zenbait non dabilzan sartu gabe, kontua azken batean, beste bat baita. Izan ere, nik sinetsi nahi nioke alkate jaunari, sinetsi barneratua duela idazlearekin eta hizkuntzalariekin darabilen kezka etiko hori, baina nahikoa dut hiriko kale artean paseatzea, bata dela eta bestea dela, milaka laguneren heriotzaren ardura duten izenak aurkitzeko nonahi, larderiari eraikitako hamaika gorazarre, Antiguako horma irudiak eragin dion buru-nekearen laurdenik ere ematen ez diotenak nonbait.

Ez zen itxuran sartzeko per-tsona. Ez da besterik.